

# COVID-19 NEWSLETTER

Singapur 2020/06/03



## INPAKTU EKONOMIKOA


### Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an <b>% -7 eta % -4 bitartean</b>	Urte arteko inflazioa martxoan <b>% -0,7</b> (2020rako aurreikuspena: % -1 eta % 0 bitartean)
Industriako PMI indizea apirilean <b>44,7</b> (2020ko urtarrilean: 50,3)	Langabezia 2020ko martxoan <b>% 2,4</b> (Behin-behineko datua)

EUR / SGD kanbio-tasa: 1,56 (urtarrilean baino % 3,3 gehiago)

### Inpaktua sektore industrialetan

Singapurreko industriak ez du murrizketa handiegirik izan apirilaren 7ko neurriak indarrean sartu arte

 **Industria:** Jarduera guztia eten da, oinarriko industriena izan ezik:



- ❖ Premia biziko produktuen fabrikatzaileak: produktu kimikoak eta petrokimikoak, osasun arloko hornidurak eta elikagaiak. Ekoizle horientzako hornitzaile eta kontratistak ere zabalik daude
- ❖ Erdi-eroaleen eta produktu farmazeutikoen fabrikatzaileak eta industria biomedikoa
- ❖ Itsasoko ingeniariak eta itsasontzien konponketetan nahiz mantenimenduzerbitzuetan parte hartzen duten *offshore* enpresak
- ❖ Sektore aeroespazialeko enpresak eta euren hornitzaileak
- ❖ Ontziratzea, inprimaketa eta elikadurako industriaren nahiz oinarriko beste industria batzuen industria osagarriak



**Energia:** Jarduera etenda dago, arlo hauetako konpainietan izan ezik: argindar sorkuntza, petrolioaren birfinketa, biltegitratzea eta banaketa, eta gas hornikuntza eta biltegitratzea



**Eraikuntza:** Jarduera erabat etenda dago



**Onartutako beste jarduera batzuk:** uraren tratamendua eta banaketa, produktu kimikoen eta beste produktu batzuen hornikuntza, telekomunikazio enpresak, *data center*-ak, irrati eta telebistako transmisioak, segurtasun nazionalarekin lotutako enpresak eta segurtasun nazionalerako funtsezkoak diren proiektuetako I+G jarduerak



## Inpaktua zerbitzuetan

### ⊘ Ostalaritza sektorea, turismoa eta entretenimendua

Itxita martxoaren 24tik. Jatetxeak itxita apirilaren 7tik (etxerako eta lokalean jasotzeko zerbitzuak onartuta daude). Oraindik ez dago berrirekitzeko datarik. Apirilaren 22tik itxita daude premia gutxieneko ostalaritza-establezimenduak

### ✓ Supermerkatuak

Zabalik

### ⬇️ Garraioa

⊘ Garraio publikoak, taxiak eta alokairuko ibilgailu pribatuek lanean jarraitzen dute

### Oinarrizkoak ez diren zerbitzuak

Itxita apirilaren 7tik. Apirilaren 22tik itxita daude lehen oinarrizkotzat jotzen ziren zenbait zerbitzu, hala nola, ile-apaindegiak, maskotentzako hornidura-saltokiak, tindategiak eta hasieran irekita mantendu ziren beste batzuk. Apirilaren 22an itxitako zerbitzuak berriz irekiko dira maiatzaren 12tik aurrera, malgutze-neurri gisa

## Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ Finantza erakundeak zabalik daude
- ❖ **Interes-tasak (SIBOR - Singapore Interbank Offered Rate):** % 0,82 maiatzean (urtarrilean % 1,77)
- ❖ **Merkatuak: FTSE Singapore Straits Time Index (STI)** - % 30 baino gehiagoko beherakada izan dute otsailaren 7tik (tokiko gobernuak egun horretan handitu zuen alerta maila eta orduan sartu ziren indarrean birusari aurre egiteko neurriak)



## EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

### Neurri fiskalak

- ❖ **Singapurreko Moneta Agintaritzak (MAS) neurri-sorta bat onartu berri du**, hiru helburu nagusirekin:
  - Erraztasunak ematea pertsona fisikoei mailegu eta aseguru-primen betebeharrak bete ditzaten, ondasun higiezinetakako kredituen, bizi-aseguruetakako primen eta antzekoen ordainketak atzeratuz
  - ETEei laguntzea kreditu “bigunak” eskuratzen
  - Likidezia bermatzea banku arteko merkatuetan. 60 mila milioi dolar amerikarreko (USD) funts bat sortu da Amerikako Erreserba Federalarekin batera, zeinari esker, Singapurrek funtsezko papera izango baitu eskualdeko merkatuei USD finantzaketarekin laguntzeko
- ❖ Era berean, hainbat **zerga salbuespen** ezarri ditu:
  - Zergen ordainketak hiru hilabetez atzeratu dira, bai norbanakoen kasuan eta bai enpresen kasuan
  - % 25eko kenkaria aplikatuko da Sozietateen gaineko zergan, gehienez 15.000 SGD (9.500 €) enpresako
  - Kitatu egingo da baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten ondasun higiezin komertzialen jabetzaren gaineko zerga / Erabateko salbuespena jasotzeko baldintza guztiak betetzen ez dituzten higiezin komertzialek % 30eko salbuespena izango dute
  - Errenta aitortpena egiteko azken eguna atzeratu egingo da apirilaren 18tik maiatzaren 31ra
  - Atzerrian lan egiten duten singapurtarrak eta Egoiliar Iraunkorak (PR) Singapurren ari badira lanean telelanaren bidez, ez dira hartuko bertako biztanletzat maila fiskalean. Horrez gain, aurreko neurria aplikatuko zaie bertako biztanleak izan gabe Singapurretik lanean ari diren eta herrialdetik irten ezin dutenei

### Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Enpresen likidezia bermatzeko xedez, **kreditu bigunak eskuratzeko aukera** ematen duten hainbat programa aktibatu dira, zeintzuek % 90erainoko arrisku partekatuko (gobenuarekin partekatuko) portzentajeak baitaukate. Kreditu komertzialak eta kapital zirkulatzailako kredituak dira
- ❖ Apirilaren 21ean, Singapurreko Moneta Agintaritzak iragarri du kreditu-mekanismo berri bat jarriko duela martxan banku eta finantza-erakundeentzat (% 0,1eko interesean), erakunde horiek interesak jaitsi ditzaten tokiko ETEentzako kredituetan

### Dirulaguntzak eta mailegu publikoak

- ❖ **Industria kaltetuenei laguntzeko neurri-sorta:** 350 milioi SGD (225 M €) abiazio industriarentzat, 90 milioi (60 M €) turismo sektorearentzat, 55 milioi (35 M €) arteen eta kulturaren industriarentzat, 300 SGD/hileko (200 €) eta ibilgailuko taxi gidarientzat eta gidari pribatuentzat



## Lan-indarra

- ❖ **Langileak:** Estatuak Singapurreko langileen eta PRen soldata gordinaren lehen 4.600 SGD-ak (3.000 €) kofinantzatuko ditu 9 hilabetez. Kofinantzaketa hori hiru tartetan banatzen da:

- % 75: aire-konpainiak, aireportuak, gurutzaldiak, hotelak, bidai-agentziak eta beste batzuk
- % 50: jatetxeak eta janari-postuak
- % 25: gainerako enpresak

Apirilean zehar, itxialdiko neurrien ondorioz, konfinantzaketa % 75 Singapurreko enpresa guztientzat izango da, edozein dela ere beren jardura sektorea. Ondoren, gorago azaldutako portzentajeak aplikatuko dira. JSSren ondoriozko ordainketak 2020ko apirilean, uztailean eta urrian egingo dira. Pandemiak gogor kolpatutako zenbait sektore (aeroespaziala, txikizkako merkataritza, itsasoko industria eta offshore industria) % 25eko koordainketatik % 50eko edo % 75eko koordainketara igaroko dira. Era berean, itxialdiaren ostean euren jarduerak presentzialki berrabiarazi ezin dituzten enpresek % 75eko koordainketarekin jarraituko dute

- ❖ **Autonomoak: Sefl-employed Person Income Relief Scheme (SIRIS):** Singapurreko autonomoek (PR) 9.000 SGD-ko (6.000 €) laguntza jasoko dute, hiru ordainketatan zatituta, maiatzaren, uztailearen eta urriaren amaieran

- Laguntza honen onuradun izateko hainbat baldintza bete behar dira: gehienezko diru-sarreraren muga, bi higiezin edo gehiagoren jabe ez izatea eta beste batzuk
- Espero da laguntza hau 100.000 autonomorenganaino iritsiko dela

- ❖ **“S Pass” edo “Work Permit” bisatuak dituzten langileak:** horrelako lan-baimendun langileak enplegatzen dituzten 62.000 enpresari inguruk 750 SGD (500 €) jasoko dituzte langile bakoitzeko, biztanleriaren itxialdi-neurriek dirauten bitartean. Bisatu horiek ematen zaizkie kualifikazio erdi-baxua duten langileei, eta hileroko tasa bat ordaindu behar izaten da, langileen soldata-mailaren eta industriaren arabera



## MUGAK

### Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ Garraio publikoak normaltasunez funtzionatzen du, baina derrigorrezko urruntze-neurriak aplikatu dira
- ✓ Merkatu-gaien garraioak normaltasunez funtzionatzen du maila lokalean

### Biztanleriaren mugikortasuna

- ✚ Derrigorrezko itxialdia eta urruntze soziala ekainaren 1era arte. Itxialdiko neurriak hiru fasetan arinduko dira, 3. fasea izango delarik "normaltasun berria". 1. fasean (iraupena oraindik ez dago zehaztuta) derrigorrezkoa da maskarak erabiltzea eta telelana egitea, eta debekatuta daude bizileku berean bizi ez diren pertsonen arteko bilerak
- ✘ Ez dago eskola presentzialik, ikasleek tele-ikaskuntzaren bidez ikasiko dute ekainaren 1era arte. 1. fasean, azken ikasturtean dauden lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak ikasgeletara itzuli ahal izango dira jardunaldi osoan. Gainerako ikasturteetako ikasleak txandaka ariko dira, eskola presentzialak astebetetz eta teleikaskuntza beste astebetetz
- ✓ Kirola egin daiteke kalean, bakarrik edo etxe berean bizi diren pertsonekin. Apirilaren 22tik aurrera, jarduera fisikoa auzoan eta bakarka egin behar da. Murrizketa hori aplikatzen da 1. fasean ere



### Mugetako egoera

- ✚ **Mugak**  
Martxoaren 23tik debekatuta daude bidaiarien sarrera eta joan-etorriak singapurtarrak edo bertako biztanleak ez diren guztientzat. Oinarrizko bidaien kasuan, mugak bilateralki irekitzeko aukera aztertzen ari dira arrisku gutxiko herrialdeekin, hala nola, Australia, Zeelanda Berria, Kanada eta Hego Korearekin
- ✓ **Portuak**  
Singapurreko portua zabalik dago, merkatu-gaien garraiorako funtsezkoa den jardueratzat hartzen delako

### ✓ Onartutako bidaiak "seguruak"

Ekainaren 8tik aurrera indarrean sartuko da "Fast lane travel" akordioa. Hala, posible izango da Txinako sei eskualdetara joatea beharrezkoak diren bidaiak eta negozio-bidaiak egiteko. Ezinbestekoa da eskaera egitea, Covid-19a detektatzeko testa egitea bidaiatu aurretik eta ondoren, eta trazagarritasunerako aplikazio mugikorra deskargatzea